Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Klaudio Belategi Pagaldai

Eskoriatza, Gipuzkoa (1922-2017)



Aurkibidea

Biografia



San Juan kaleko Arbe kale baserrian jaioa. 14 urterekin hasi zen lanean. Santa Agedari buruzko informazioa jasotzeko elkarrizketatu genuen. Herriko hainbat ohiturari buruzko azalpenak eman zizkigun. Errepublika garaiko eta gerra sasoiko kontuak ere kontatu zituen.

Zintak

ESK-080

- **Proiektua**: Eskoriatzako ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2014-07-21
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Ismael Lopez de Gauna maisuarekin Eskoriatzako eskolan

- **Erref**: ESK-080/002
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:04:15. **Bukatu**: 00:05:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Eskoriatzako eskolan ibili zen Ismael Lopez de Gauna maisu burgostarrarekin. Gerra hasi zenean, eskolak bertan behera geratu ziren 6-7 hilabetez.

2. 1934ko grebaren inguruko oroitzapenak

- **Erref**: ESK-080/004
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:07:02. **Bukatu**: 00:08:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
1934ko urriko iraultzako oroitzapenak. Bera esnea partitzera zihoala, Gasteiz aldetik autobusak ikusi zituen Arrasaterantz pasatzen. Greba egin zen, baina orduan lantegi oso gutxi zegoen: Arrasaten Elma eta Zerrajera; Aretxabaletan Beroa eta Zubia. Arrasaten bi pertsona hil zituzten, baina Eskoriatzan ez zen liskarrik izan.

3. Gerra sasoia etxean; zauritutako laguna

- **Erref**: ESK-080/007
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:09:32. **Bukatu**: 00:12:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra hasi zenean, eskola kendu egin zuten. Frontea etxetik gertu zuten eta beldurrez etxe barruan pasatzen zuten denbora gehiena. Gogoan du bere aldamenean zegoen lagun bat nola zauritu zuten. Soldaduak hiribururen bat hartu zutela ospatzen ari omen ziren. Gurasoak adinean aurrera zihoazen eta bi anaia nagusienak etxean geratu behar. Gero anaia soldadu joan zen. Lan asko eta dirurik ez.

4. 14 urterekin hasi zen lanean

- **Erref**: ESK-080/008
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:12:12. **Bukatu**: 00:14:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
14 urterekin Guardia Zibilen kuartelaren ondoan zegoen tailer txiki batean hasi zen lanean. 1941ean Gasteizera joan zen tailer hura eta gero itxi egin zen. Aluminiozko ontziak egiten zituzten: lapikoak, platerak... Eskuz moldatzen zuten metala, orduan makinarik ez zegoen eta.

5. Garai batean batasun eta laguntasun handiagoa herritarren artean

- **Erref**: ESK-080/010
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:15:38. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Garai batean lan asko auzolanean egiten ziren. Auzo-alkateak egoten ziren eta

haiek Udalari eskatzen zioten baimena. Gero merienda ere egoten zen. Lehen herritarrek asko laguntzen zioten elkarri, beharra ikusiz gero. Etxeetako ateak zabalik egoten ziren lehen. Batasun handiagoa zegoen.

6. Kintoak Santa Ageda batzen, baserriz baserri

- **Erref**: ESK-080/013
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:19:22. **Bukatu**: 00:21:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:
Soldadutzara joan behar zuten mutilak, kintoak, ibiltzen ziren Santa Ageda batzen. Bezperan hasten ziren, eguerdian eta baserriz baserri ibiltzen ziren. Txorizoak, arrautzak... asko batzen zen orduan. Santa Ageda egunean kalekoak batu eta gero bazkaria tabernan. Sobratzen zena erresidentziara.

7. Santa Agedetarako aurrez entseatu egiten zuten mutilek

- **Erref**: ESK-080/015
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:21:55. **Bukatu**: 00:22:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:
Mutilak Santa Ageda batzen ibiltzen zirenean, abestu egiten zuten baserrietan. Aurrez egunetan entseatzen zuten. Herriko batek irakasten zizkien gazteei kantak eta aurreskua ere bai.

8. Santa Ageda batzen soinu-jotzailearekin

- **Erref**: ESK-080/017
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:23:32. **Bukatu**: 00:24:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Santa Ageda batzera akordeoiarekin joaten ziren. Eskoriatzan Musika Banda bazegoen, baina denak sakabanatuta zeuden, gerraren eraginez. Kanpotik ekartzen zen soinu-jotzailea; `Angiozarko itsua´ eta herriko beste soinu-jotzaile bat.

9. Santa Ageda batzen ibiltzen ziren mutilen janzkera

- **Erref**: ESK-080/018
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:24:36. **Bukatu**: 00:26:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Santa Ageda batzen ibiltzen ziren mutilek zer janzkera izaten zuten: praka eta alkandora zuriak eta txapel eta zapi gorria. Buru egiten zuenak txapel beltza eramaten zuen. Alkateak zenbait jarraibide ematen zizkion eta hura izaten zen arduraduna. Baserri eta auzo guztietara joaten ziren. Bidean suziriak botatzen zituzten, abisu moduan. Jendeak asko ematen zuen.

10. Gerra sasoian zapataz betetako trena hustu zutenekoa

- **Erref**: ESK-080/020
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:27:00. **Bukatu**: 00:28:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Gerra sasoian zapataz beteta zihoan tren bat geldik geratu zen Eskoriatza parean. Soldaduek sakeatu egin zuten eta zapatak herri osoan banatu zituzten.

11. Santa Ageda batzera oinez

- **Erref**: ESK-080/021
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:28:03. **Bukatu**: 00:29:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Santa Ageda batzen baserririk baserri ibiltzen zirenean, denek ematen zuten zerbait, asko eduki ez arren. Oinez joaten ziren. Bizikletarik ere ez zen orduan. Ardoa eramaten zuten botan eta baserrikoei ere tragoa ematen zieten ordainetan.

12. Santa Ageda eguneko eskea Eskoriatzako kaleetan

- **Erref**: ESK-080/022
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:29:24. **Bukatu**: 00:31:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Santa Ageda egunean, eskea kalean egiten zen. Gerra garaian pare bat urtean ez zen egin, mutikorik ez zen geratzen eta. Kale barrenetik gora joaten ziren. Asko zela iritziz gero, batzuk goitik eta besteak behetik. Poltsa eramaten zuten, dirua batzeko. Baserriko gaiak batzeko, zestoak.

13. Santa Agedetako aurreskuan mutilak neskak dantzara ateratzen zituzten

- **Erref**: ESK-080/024
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:31:40. **Bukatu**: 00:34:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Santa Agedetan aurreskua egiten zen eta mutilek neskak ateratzen zituzten. Aukeratutako neska gero afaltzera gonbidatzen zen. Ligatzeko egun aproposa zen, baina ez zuten gaur bezalako pikardiarik. Dantzak eta kantak aurrez ondo prestatzen zituzten, egunero entseatuta. Dantzak aldatu egin direla dio. Lehen beste grazia bat zuten, ilusioa.

14. Santa Agedetako sokadantza

- **Erref**: ESK-080/026
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:34:43. **Bukatu**: 00:35:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Santa Agedako dantzen inguruko azalpenak. Aurreskuari eta atzeskuari neska bana ateratzen zieten beste lau dantzarik. Neska haiek sokan sartzen ziren eta gero mutil guztientzako neska bana sartzen zen sokara. Amaieran dantza soltean egiten zuten denek.

15. Santa Agedako sokadantzan parte hartzen zuten neskak afaltzera gonbidatuta

- **Erref**: ESK-080/029
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:37:24. **Bukatu**: 00:38:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Santa Agedetan baserrietan batzen zutenarekin afaria egiten zuten tabernetan edo lokaletan. Gero soinuarekin dantzan. Sokadantzarako aukeratzen zituzten neskak ere gonbidatuta egoten ziren. Baina neskek ez zuten parte hartzen Santa Ageda batzen.

16. Inauterietan "Kukumarru" jantzita

- **Erref**: ESK-080/032
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:40:34. **Bukatu**: 00:41:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Inauterietako "Kukumarruak". Arropa zaharrak jantzi eta kalera. Mutiko handienak janzten ziren "kukumarru" eta txikiagoek ihes egiten zuten, ez jotzeko.

17. "Kukumarru"ak puxikarekin umeen atzetik

- **Erref**: ESK-080/034
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:43:12. **Bukatu**: 00:44:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Inauterietako "Kukumarruak" umeen atzetik ibiltzen ziren. Txerriaren puxika lehortu, puztu eta hura erabiltzen zuten jotzeko. "Kukumarruek" ez jotzeko, aterpera edo elizpera sartzen ziren, hura errespetatu egiten zuten eta.

18. Gerraostean inauteriak debekatuta

- **Erref**: ESK-080/036
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:45:27. **Bukatu**: 00:46:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
"Kukumarru"en ohitura galduta egon zen. Gerra ostean inauteriak debekatuta egon ziren urte askoan. Inauterietan bi egunetan mozorrotzen ziren, igandean eta asteartean. Aurkitzen zuten arropa zatarrenarekin mozorrotzen ziren.

19. "Urdelardero" eguneko ohiturak

- **Erref**: ESK-080/038
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:47:00. **Bukatu**: 00:49:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
"Urdelardero" eguneko ohiturak. Makila mehe batekin joaten ziren umeak baserrietara eta urdaia edo odolkia edo ematen zutena zirian sartzen zen. Dirua ematen bazuten, poltsara. Bakoitzak bere makila aurkitu behar izaten zuen eta pozik joaten ziren makila bila. Kale inguruko baserrietan ibiltzen ziren beraiek.

20. Ohitura zaharrak eta sinesmenak: ur eta su bedeinkatua, San Kristobal ermita

- **Erref**: ESK-080/042
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:52:18. **Bukatu**: 00:56:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Garai bateko ohiturak: ur bedeinkatua, su bedeinkatua. "Illintzixa" zer den. Elizpean sua egiten zuten. Makila bat eraman behar izaten zen eta handik bedeinkatutako sua hartu. Urarekin ere antzera. Su bedeinkatuaren errautsa eta ura ortuan botatzen ziren. Aramaiotik gora dagoen San Kristobal ermitara joaten zen gorreria edo belarriko mina zuen jendea.

21. Lurrezko pitxarrarekin iturrira; urik ez etxeetan

- **Erref**: ESK-080/043
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:56:33. **Bukatu**: 00:58:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Uretara joateko lurrezko pitxarra erabiltzen zuten. Uribarri Ganboan egiten zituzten. 1928 inguruan ipini zuten ura kaleetan. Aurretik denak iturrira. Arropak garbitzera errekara joaten zen ama.

22. Besoetakoari "karapaixua" eramateko ohitura

- **Erref**: ESK-080/045
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:58:35. **Bukatu**: 01:00:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Umeren baten aita edo ama pontekoa izanez gero, koskortzen zenean, Garizuman "karapaixua" eraman behar izaten zitzaion. "Karapaixua" ogi bat izaten da, baina hainbat gai jartzen zaizkio: arrautza, sagarra, txorizoa... Batzuek etxean egiten zuten eta bestela okindegian erosi.

23. "Karapaixua"ren ohitura, umetako kontua

- **Erref**: ESK-080/047
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:01:55. **Bukatu**: 01:02:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Besoetakoari "karapaixua" eramateko ohitura umetako kontua zen, nahiz eta gero batzuek nagusiagotan ere ohiturari eutsi. Normalean 10-12 urte ingurura arte izaten zen.

24. San Juan sua eta "txopua" jartzeko ohitura

- **Erref**: ESK-080/049
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 01:03:17. **Bukatu**: 01:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
Beti egon izan da San Juan sua egiteko ohitura. Plaza erdi-erdian egiten zen. Mutikoak eskolatik irtendakoan basotik sutarako materiala ekartzera. "Txopua" jartzeko ohitura ere badago Eskoriatzan. Gauez joaten ziren bila eta baserritarrekin beti liskarrean. Nola jartzen zuten. Puntan aza eta tipulak jartzen ziren. Puntara igo eta haiek hartzen zituenari saria ematen zioten.

25. Gorpuzti eguneko ohiturak

- **Erref**: ESK-080/052
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 01:08:45. **Bukatu**: 01:09:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:
Gorpuzti egunean ira berdea ebaki, ekarri eta etxe aurrean botatzen zuten. Gero, gurutzeak egiten ziren eta ateetan jarri.

26. Medikua izatearren, etxea dohainik

- **Erref**: ESK-080/059

- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:15:58. **Bukatu**: 01:17:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Goierri aldekoa zen medikua (ez du gogoratzen izena). Ondoren egon zena Domingo Arrieta gatzagarra. Medikua zelako, etxea dohainik eman zioten. Non zeukan etxea. Opariak ematen zitzaizkien medikuei eta abadeei. Gehien agintzen zutenak ziren.

27. Ume asko hiltzen zen; hil-kanpaiak

- **Erref**: ESK-080/060
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:17:33. **Bukatu**: 01:18:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Hil-kanpaiak ezberdinak izaten ziren hildakoa gizonezkoa edo emakumezkoa bazen. Hildakoa umea zenean, kanpai finagoak. Ume asko hiltzen ziren erditzeetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com